

2022-2023 urteetan lurzoru publikoa feriekin okupatzeko baimenak emateko prozedura arautzen duen baldintza-plegua

1. Deialdiaren xedea

2019ko urriaren 1ean emandako dekretu baten bidez Tokiko Gobernu Batzarrak bezperan egindako proposamenak onartu zituen eta horien artean honako hau:

“1) Urte natural bakoitzean feriekin lurzoru publikoa okupatzeko irizpide hauek onartzea:

- *Kokapena:*
 - a) *Urtean gabon garaian (abenduarien 5etik urtarrilaren 6aren osteko lehen igandera arte), Munibe plazan.*
 - b) *Karnabalen inguruan, gehienez ere 11 eguneko okupazioa eginez (asteazkenetik karnabaletako asteartearen asteko igandera arte), Fraiskozuri plazan. Okupazioak modu zabalean errespetatu beharko ditu terrazekin egiten den okupazioa eta oinezkoen pasoa eta, horretarako, aurrez zehaztuko da gehienezko azalera.*
 - c) *Uda garaian (San Martin ostean) gehienez ere 16 eguneko okupazioa eginez, Espolioan.*

- *Baldintzak*

Ohizkoak diren baldintzei honako hau gehitzea:

Okupazioa egiten den inguruan zaratak ahalik eta gutxien molestatzeko musikaren bolumena zaintzea, musikaren ordutegia eta feriaren “bidaiaren amaiera abisatzeko zarata” mugatuko da, azken hau ahal dela ekiditea ezinbestekoa izanik.”

Gauzak horrela, deialdi berri bat egiten da, honako hauek izanik prozedura eta baldintzak:

Deialdi honen xedea da 2022-2023 urteetan feriekin lurzoru publikoaren okupazioa egiteko baimenak ematea.

Zehazki:

- 1.- Gabon garaian, Munibe plazan. Abenduko lehen igandetik, hurrengo urtarrilaren 6aren ondorengo lehen igandera arte (Okupazioak modu zabalean errespetatu beharko ditu terrazekin egiten den okupazioa eta oinezkoen pasaguneak):
 - 2022ko abenduaren 4tik, 2023ko urtarrilaren 8ra.*
 - 2023ko abenduaren 3tik, 2024ko urtarrilaren 7ra.*
- 2.- Karnabal garaian, Fraiskozuri plazan. Karnabaletako asteartearen aurreko asteazkenetik, ondorengo igandera arte (Okupazioak modu zabalean errespetatu beharko ditu terrazekin egiten den okupazioa eta oinezkoen pasaguneak):
 - 2022ko otsailaren 23tik martxoaren 6ra.*
 - 2023ko otsailaren 15etik 26ra.*
- 3.- Uda garaian, Espolioan. 2022. eta 2023. urteetako irailaren 17tik aurrera (San Martin ostean) gehienez 16 eguneko okupazioa eginez.*

** Epealdi hauek irizpide orokorretara egokitzeko unean doitu ahal izango dira.*

2. Eskaerak

Aipatutako jarduerarako legezko baldintzak betetzen dituzten enpresek edo jarduteko gaitasun juridikodun pertsonak egin ditzakete eskaerak.

Eskaera idatziz aurkeztuko da, F0140C inprimakia beteta, erregistro elektronikoaren bitartez, eta bertan azaldu beharko da zein datetan nahi duten okupaziorako eta salmentarako baimena eta baita baldintza-plegu honek jasotzen dituen betebeharrak guztiak ezagutzen dituztela eta betetzeko prest daudela ere.

Eskaerak aurkezteko epea **2021eko azaroaren 29ko arratsaldeko 14:30ean** bukatuko da.

3. Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak

Adjudikazio-hartzaile edo baimendunaren betebeharrak:

1.- Baimendutako interesdunak okupazio-data baino 10 egun natural lehenago egiaztatu behar du bete beharreko baldintzak betetzen dituela, eta horien agiriak aurkeztu beharko ditu; zehazki:

- Gizarte Segurantzaren autonomoen erregimenean altan dagoela eta azken hilabetea ordaindu duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.
- Haziendako betebeharrak egunean egotea.
- Kontratatuta izan beharko du erantzukizun zibileko poliza, gutxienez 150.000,00 euroko mugarekin, eta horren ordainketaren agiria aurkeztu beharko du okupazioa egin aurretik.
- Ekonomia Jardueren Zergan altan dagoela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.
- Dagozkion tasak ordaindu izanaren eta 375 euroko fidantza jarri izanaren agiriak.

Halaber, feria martxan jarri aurretik, feriaren ikuskapen teknikoa aurkeztu beharko du – dagokion teknikari gaituak eta kolegiatuak egindakoa eta sinatutakoa–, baita muntatu ostekoa ere.

2.- Jarduerak eragin ditzakeen kalteen erantzulea izango da, eta udalak ere jarduera horren aurrean hirugarren baten izaera izango du.

3.- Honako baldintzak ere bete behar ditu:

- Iberdrolarekin kontratatu beharko dute argindarra, eta debekatuta dago udal saretik hartzea. Erabili beharreko argindarra 50 Kw baino gutxiagokoa denean, dagokion buletina egin beharko da instalatzaile ofizial baten bitartez, eta 50 Kw-koa edo gehiagokoa denean buletina eta proiektu elektrikoa beharko da, eta instalatzaile ofizialak egin beharko ditu lotura guztiak. Iberdrolarekin argindarra hornitzeko kontratua sinatu beharko da eta hornidura ferialariaren kontura izango da.
- Jostalekuak jartzeko ezingo da lurra zulatu.
- Erreklamazio-orriak izan beharko dituzte eta horren berri ikusgai jarri.
- Musika: Musika euskalduna jarri beharko dute denbora gehienez. Edonola ere, ezingo da zarata iskanbilatsurik edo bolumen handikorik erabili txanda edo denbora bakoitza bukatzen dela adierazteko. Eta musika eta soinuak ezingo dira jarri edo erabili 20:30etik 12:00ak bitartean, ezta 14:30etik 17:00ak bitartean ere.
- Feria martxan izateko ordutegiari dagokionean, zabalik izango dute goizeko 11:00etatik 14:30era bitartean eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bitartean. Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan beranduen ere 22:00etan itxi ahalko da.

- Feriaren ikuskapen teknikoa eginda izan beharko du –kasu guztietan dagokion teknikari gaituak eta kolegiatuak egindakoa eta sinatutakoa–, eta baita muntatu ostekoa ere.
- Ferialari bakoitzak, aurretik, okupazioari dagozkion tasak ordaindu eta 375 euroko fidantza jarri beharko dute.
- Jarriko den feriak ezingo du erabakian adierazitako azalera gainditu.
- Hizkuntzari dagokionean, honako irizpide hauek izango dira kontuan:
 - o Jendaurrean jartzen diren kartelak eta bestelako informazioak gutxienez euskaraz egon beharko dira (edo behar denean euskaraz eta gaztelaniaz, biak material berean eta euskarari lehentasuna emanda).
Testuak euskaratzeko laguntza behar izanez gero, UEMARA jo daiteke (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea. 943 81 66 99 edo komunikazioa@uema.eus), gutxienez astebeteko aurrerapenarekin.
 - o Horrez gain, musika jartzen duten jostalekuek % 75 euskaraz jarri beharko dute eta erabiltzaileekiko ahozko adierazpenetan ere euskara erabiliko da ahal den guztietan.
- Abenduko garaian jartzen den feriak Bedelkar elkartearekin hitzarmena adostuko du, dendariak fitxa bidez edo agiri bidez bidaiak eskaintzeko aukera izan dezaten.
- Jostalekuaren prezioa bidaiako gehienez **1,50 euro** izango da, eta 6 bidaiaren abonua gehienez 7 euro, eta bidaiak bakoitzaren gutxienerako iraupena 2 minutukoa.
- Ingurua garbi mantendu beharko du egunero eta okupatutako eremua ere garbi utzi beharko du alde egiten duenean.

4. Adjudikazioa

Interesdun bat baino gehiago izanez gero, adjudikazioa egiteko eskaera aurkeztu dutenen artean zozketa bat egingo da data edo epealdia aukeratzeko hurrenkera ezartzeko.

Hurrenkeraren arabera banaka epealdi bat aukeratuko dute eta hurrengo interesdunera pasatuko da. Epealdiak soberan geldituko balira, hasieratik ekingo zaio berriro, hurrenkerari jarraituz.

Zozketa hau **abenduaren 3an** egingo da **eguerdiko 13:30ean**, Bergarako udaletxean, lehenengo solairuan.

Zozketaren emaitza web-orrian argitaratuko da eta horrek jakinarazpen-izaera izango du.

Jardueran jardungo dute baimena dutenek eta haiekin familia- edo lan-harremana dutenek, eta horren berri aurretik eman beharko dute.

5. Udalaren betebeharrak

Udalak aurretik finkatutako guneak gordeko dizkie, eta udalaren baimenik ez duen beste inork ez duela jardungo bermatuko die.

6. Ustiatzeko eskubidea

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango du okupaziorako baimena edo eskubidea beste edozeini laga edo zeditu.



Interesik ez balu, gutxienez 10 lanegun lehenago Bergarako Udalari idatziz jakinarazi beharko dio, eta zozketan erreserbarako edo zerrendan atera den hurrengoari eskainiko zaio.

Pliego de condiciones reguladoras del procedimiento para concesión de autorizaciones de ocupación de suelo público con ferias durante los años 2022-2023

1. Objeto de la convocatoria

Mediante decreto emitido el 1 de octubre de 2019, se aprobaron las propuestas efectuadas la víspera por la Junta de Gobierno Local y, entre ellas, la siguiente:

1) *Aprobar los siguientes criterios para ocupación de suelo público con ferias para cada año natural:*

- *Ubicación:*

- a) *En la época navideña anual (desde el 5 diciembre hasta el primer domingo posterior al 6 de enero), en la plaza Munibe.*
- b) *En torno a Carnaval y realizando la ocupación como máximo durante 11 días (desde el miércoles hasta el domingo de la semana del martes de carnaval), en la plaza Fraiskozuri. Las ocupaciones deberán respetar ampliamente las ocupaciones de las terrazas y los pasos de peatones, por lo que se determinará de antemano la superficie máxima a ocupar.*
- c) *En época veraniega (después de San Martín) como máximo durante 16 días, en el Espolón.*

- *Condiciones*

Se añadirá lo siguiente a las condiciones habituales:

Se controlará el volumen de la música para que la ocupación moleste lo menos posible en la zona en la que se ha realizado la ocupación, se limitará el horario de la música y el sonido que avisa del final del viaje, siendo obligatorio que se evite este último siempre que sea posible hacerlo.

Así pues, se abre una nueva convocatoria, con el siguiente procedimiento y condiciones:

Constituye objeto de la presente convocatoria la concesión de autorizaciones para realizar ocupación de suelo público con ferias durante los años 2022-2023.

Concretamente:

- 1.- En temporada de Navidad, en la plaza Munibe. Desde el primer domingo de diciembre hasta el domingo siguiente al 6 de enero (La ocupación deberá respetar ampliamente la ocupación que se realiza con terrazas así como las zonas de tránsito de peatones):
 - Del 4 de diciembre de 2022 al 8 de enero de 2023.*
 - Del 3 de diciembre de 2023 al 7 de enero de 2024.*
- 2.- En temporada de Carnaval, en la plaza Fraiskozuri. Desde el miércoles anterior al martes de Carnaval hasta el siguiente domingo (La ocupación deberá respetar ampliamente la ocupación que se realiza con terrazas así como las zonas de tránsito de peatones):
 - Del 23 de febrero al 6 de marzo de 2022.*
 - Del 15 al 26 de febrero de 2023.*

- 3.- En temporada estival, en el Espolón. A partir del 17 de septiembre (después de San Martín) en los años 2022 y 2023, realizando una ocupación de 16 días como máximo.*

* *Estos periodos podrán ser ajustados para adaptarse en su momento a los criterios generales.*

2. Solicitudes

Podrán formular sus solicitudes todas las empresas o personas jurídicas con capacidad de obrar que cumplan los requisitos legales para dicha actividad.

La solicitud será presentada por escrito, cumplimentando el impreso F140C mediante registro electrónico, y en la misma se deberán indicar las fechas para las que desean la autorización de ocupación y venta, manifestando así mismo que conocen y están dispuestos/as a cumplir todas las obligaciones recogidas en el presente pliego de condiciones.

El plazo de presentación de solicitudes finalizará a las **14:30 horas de la tarde del 29 de noviembre de 2021**.

3. Obligaciones de las personas o entidades adjudicatarias

Obligaciones de las personas o entidades adjudicatarias o autorizadas:

1.- La persona o entidad interesada autorizada deberá acreditar, con una antelación de 10 días naturales antes de la fecha de ocupación, que cumple los requisitos exigidos, presentando los documentos correspondientes; concretamente:

- Se deberá presentar el documento acreditativo de estar dado de alta en el régimen de autónomos de la Seguridad Social, así como de haber abonado la cuota del último mes.
- Encontrarse al corriente respecto a sus obligaciones con Hacienda.
- Deberá tener contratada una póliza de responsabilidad civil con un límite mínimo de 150.000,00 euros, debiendo presentar el recibo de dicha póliza antes de realizar la ocupación.
- Se deberá presentar el documento acreditativo de estar dado de alta en el IAE (Impuesto de Actividades Económicas).
- Los documentos acreditativos de haber abonado las tasas correspondientes y haber depositado una fianza de 375 euros.

Así mismo, antes de poner en marcha la feria, deberá presentar su inspección técnica – elaborada y suscrita por técnico/a correspondiente, competente y colegiado/a–, así como la inspección técnica efectuada tras el montaje de la misma.

2.- Así mismo, será responsable de los posibles daños que pudiera generar la actividad, ante la cual el ayuntamiento tendrá también la consideración de tercero.

3.- Deberá cumplir así mismo las siguientes condiciones:

- La electricidad deberá contratarla con Iberdrola, quedando prohibido el suministro a partir de la red municipal. Si la potencia necesaria es inferior a 50 Kw, deberá de realizar el “boletín” correspondiente mediante un instalador oficial, pero si la potencia es de 50 Kw o superior, será preciso el boletín y un proyecto eléctrico, debiendo efectuar todas las conexiones dicho instalador oficial. Deberá firmarse con Iberdrola el contrato de suministro eléctrico, que correrá por cuenta del feriante.
- No podrá agujerearse el pavimento para la instalación de las atracciones.

- Deberán disponer de hojas de reclamaciones y dar cuenta de ello exponiéndolo al público.
- Música: La música deberá ser mayoritariamente euskaldún. En todo caso, no podrán utilizarse sonidos estridentes o de volumen excesivo para señalar el fin de cada vuelta o turno, no pudiendo emitir sonido alguno ni poner música entre las 20:30 y las 12:00 horas, ni entre las 14:30 y las 17:00 horas.
- Respecto al horario de funcionamiento de la feria, estará abierta por la mañana entre las 11:00 y las 14:30 horas y por la tarde entre las 16:00 y las 20:00 horas. Los viernes, sábados y vísperas de festivo se podrá cerrar como máximo a las 22:00 horas.
- Deberá tener realizada la inspección técnica de la feria –elaborada y suscrita en todos los casos por técnico/a correspondiente, competente y colegiado/a–, así como la inspección técnica efectuada tras el montaje de la feria.
- Cada feriante deberá abonar previamente las tasas correspondientes a la ocupación y depositar una fianza de 375 euros.
- La feria instalada no podrá superar la superficie que se indique en la resolución.
- Respecto al idioma, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:
 - o Todos los carteles que se coloquen en la feria, así como cualquier otra información, deberán estar al menos en euskera (y si fuera preciso en euskera y castellano, ambos con el mismo material y dando prioridad al euskera).

En caso de necesitar ayuda para traducir los textos al euskera, pueden contactar con UEMA, con al menos una semana de antelación (UEMA - Mancomunidad de Municipios Euskaldunes: 943 81 66 99 o komunikazioa@uema.eus).
 - o Además, las atracciones con música deberán programar la misma en un 75 % en euskera, y se utilizará como lengua oral con las personas usuarias siempre que sea posible.
- La feria que se vaya a instalar en la temporada de diciembre deberá acordar un convenio con la asociación Bedelkar, a fin de que los comercios puedan ofrecer viajes gratis mediante fichas o tickets.
- El precio máximo de la atracción será de **1,50 euros/viaje**, con un abono de 6 viajes cuyo precio máximo será 7 euros; siendo la duración mínima de cada viaje de 2 minutos.
- El entorno deberá mantenerse diariamente en perfecto estado de limpieza, y así deberá quedar el espacio ocupado una vez que se retire la feria.

4. Adjudicación

En caso de haber más de una persona interesada, se celebrará un sorteo entre quienes hayan presentado solicitud de adjudicación a fin de determinar el orden para la elección de fecha o periodo de ocupación.

Siguiendo dicho orden, elegirán individualmente un periodo y se pasará a la siguiente persona interesada. En caso de quedar periodos disponibles, se reanudará desde el principio por orden de prelación.

El sorteo se celebrará **el día 3 de diciembre, a las 13:30 horas del mediodía**, en el primer piso del Ayuntamiento de Bergara.

El resultado del sorteo será publicado en la página web, lo cual tendrá carácter de notificación.

Las personas que desarrollen la actividad serán las que cuentan con autorización y aquellas que tengan con ellas algún vínculo familiar o laboral, debiendo dar cuenta de ello previamente.

5. Obligaciones del ayuntamiento

El ayuntamiento les reservará con antelación los espacios establecidos, garantizando que nadie desarrollará la actividad sin autorización municipal.

6. Derecho de explotación

La persona o entidad adjudicataria no podrá ceder a terceros la autorización o derecho de ocupación.

En caso de no estar interesada, deberá comunicarlo por escrito con una antelación mínima de 10 días hábiles al Ayuntamiento de Bergara, el cual se lo adjudicará a quien haya quedado en reserva o en la siguiente posición en la lista del sorteo.